

7ARR

BIZKAITARRAI
BIZKAIERAZ
12 n. ZENBAKIA
UZTAILLA
— 1978 —



BEISTEGI'TAR JON'ERI • OMENALDIA • LOIOLA'N

***Olako eginbearrak artzera,
oitu zaitte.
Urte bi igaro baiño len,
lau laguntza barri.***

Gauzetarako ikuspegi barria, artu-emonak izateko era barria eta geroak gaur eskatzen dauan laguntza-moltzo osotua-goa eskintzea aitatzen dogunean, geuk daukaguzan aurrerapen gurariai egitezko erantzuna emoteko baietza agertzen gagoz.

Esaterako, dana gertu daukagu eperako dirua ezarteko libretak izan daitezcan.

Laguntza barria da ori eta laster emongo doguzan laguntza askoren artean, lenengoa.

Gure laguntzak zabaltze ta aldatze au, Bizkai'ko Aurrezki-Kutxak guztiontzat etorkizun ederrago bat egitea gura dauala adiazoteko bidea izango da.

Etorkizuna, geroa, gaur asi bear dogu.

Biar emen izango da.



**BIZKAI'KO
AURREZKI KUTXA**

Geroa, bertan daukagu.



GUDAN ETA BAKEAN

ABERRIA KONTUAN.—Sendiaren eta erriaren urrengo, erakunderik beroena eta giza-koiena, zalantza barik, aberria dogu.

Aberria, gurasoak itzi dauskuen kulturearen laburpena da.

Aberria, gogoz eta odolez guztiok maitatzen dogun lurra da.

Aberria, endaz, alkar-lanez eta elburu bardiñez alkartzen garan gizonen batza zabala da.

Aberria beroa, geurea, barrutik doitzen gaitun bizitasuna da.

Baiña aberriak bere estutasunak i:eatzen ditu.

Batzutan barrutik datorkozan gaiso-aldiak izaten dira, beste batzutan inguruko aberri edo laterrian indarkeriak, iñoz gudea.

Eta estualdietan aberria kontuan artu bear dogu, geurea da ta.

* * *

GUDAN.—Gudeak izen txarra dauka.

Gizonak alkar ilteko bidea da.

Iñoz ez leukee gizonak gudarik egin bear, baiña noizean bein bearrezkoa gertatzen da.

Olako zerbait jazo jakon gure aberriari España'tarren azkenengo gudan: Guk ez genduan gudea sortu. Kanpotik etorri jakun. Eta geure burua zaindu-bearrean aurkitu giñan.

Galdu egin genduan, baiña bizi gara. Izan begie bizitza illezkorra bizia emon eben anaiak.

Euskaldunak ez dogu egundo guda arrapatzaillerik egin, ez gara iñoren aberriaren zapalketan ibilli. Gure gudariak edo billatzaillak mundu zabalean kultura-eroale eta ekarle izan dira, Ameriketara esaterako.

* * *

BAKEAN. Bake-aldietan be eginbear astunak izaten dira aberrian.

Batez be erakunde egokiak sortu bear izaten dira. Lenago be bai, eta gaur askoz ugarriago. Gaur erakundeen aldian gagoz. Antxiñako euskaldunak izan eben zeozelanko erakundea, euren batzarretan batez, be, baiña gaur onetan lan aundia egin bear da.

Aberriak bake-aldietan azi egin bear dau: Azi kulturen, azi bizikera egokia sortzean, azi aurrerapenean.

Zenbat lan egiteko, bakean biziten itziko ba'leuskigue!

Baiña bakerik ez daukagulako, ezin dogu bake-lan au osotu.

* * *

KONDAIRAN.—Euskalerrriaren kondairara begikunea zuzentzen ba'dogu, bake-aldiak urri aurkituko doguz. Nondik edo andik, geienetan eraso ta arriskua izan doguz. Sarritan, gaiñera, geu konturatu barik ,bakean gagozelakoan.

Bakerik izan ba'da be, arriskudun bakea izan da: geure kulturea galtzen, geure lurra galtzen, geure jabetasuna galtzen... eta txarrago dana, anai-arteon burrukan sarritan.

Arrapatariak beti izan doguz inguruan, len, gaur eta gero be izango. Eta ori gitxi ba'litz, anai-arteon goraberak.

* * *

GUDAN ETA BAKEAN.—Baiña, zorionez, Euskalerrriak seme zintzoak ugari izan ditu, bai gudan eta bai bakean. Orreik atera dabe Erria aurrera: Gudaldian izkilluak eta bakealdian idazkortza artzen jakin dabenak. Zenbaki onetan emongo doguz Beiztegi'tar Jon'eri egin jakon omenaldiaren barriak. Orra or olako gizon bat. Orra or, gaur aberriak kontuan artu bear dauan gizona: Gudan eta bakean abertzalea.

ETXE BEREAN

Bera izenorde indar-emolea dozu.

Izenorde soillak: *ni, i (zu), a*.

Indar-emoleak: *neu, eu (zeu), Gera*.

Irugarren maillako izenorde indar-emole onek gaztelera-ko «el mismo» esan gura dau.

Eta izenorde onen «caso inesivo» dalakoa *berean* egiten dabe gramatikalariek. Adibidez:

Etxe berean en la misma casa.
Aldi berean en el mismo tiempo.
Egun berean en el mismo día.
Erri berean en el mismo pueblo

Bizkaiera darabilen idazleak be onelantxe idazten dabe, nik dakidala beintzat.

Euskalki au egiten dan alderdi batzuetan, baiña, «en la misma casa», esate baterako, ez leukee *etxe berean* esango.

Nire erri aldean, argibidez, *etxean bertan* edo *etxe arelmz bertan* esango leukee. *Peru eldti zan egunean bertan* (edo *egun aretan bertan*) *eldu zan nire aita be*.

Baiña «Iñaki y Koldo no viven en la misma casa —en una misma casa» esaldia euskeratu nai izan ezkerro, ez genduke esakera ori erabiliko, beste au baiño: Iñaki y Koldo ez dira *etxe Galen* bizi.

Beste leku batzuetan, barriz, Morga'n, esate baterako, gauza bera adierazoteko beste esakera jator bat erabili oi dabe. Auxe:

Etxe beratan bizi dira.
Leku beratan jazo jakon ez bear ori.
Egun beratan etorri zan nire osabea.
 Onelango esakuntzak eurrez entzuten dira Morga'n.
 Egitura berekoak dirala esango neuke urrengook be:
Egun banatan elorri ziran (cada uno en día distinto).
Senar-emazte izan arren, etxe banatan bizi dira (cada uno en su respectiva casa).

Osaba-lobak kotxe banatan Joan dira (cada uno en su respectivo coche).

BILBO'RA IXEN NAZ

Leengo egun batez, andratxu bategaz berbetan niarduala, esakera auxe jaurti eustan: *Gaur goixian Bilbo'ra ixen (izan) naz*.

Zeiñen ederto esanda, esan neban neure kolkorako.

Izan aditzak batzuetan gaztelera-ko «estar» aditzaren esangurea dauala gauza jakiña da. Adibidez:

—Non da aita? zDonde está el padre?

—Mendian da. Está en el monte.

Gaur goizean Bilbo'ra joan naz edo *atzo Bilbo'n egon nintzan* eta onelango esakunak entzuten doguz gure egunotan, gaztelera-ko be orrelantxe esaten da-ta: Esta mañana he ido a Bilbao, ayer estuve en Bilbao.

Euskaldun-euskaldunak, baiña, askoz jatorrago esan oi dabe: *Gaur goixean Bilbo'ra ixen naz, atzo Bilbo'ra ixen nintzan*. Esakunoi beste euskal kutsu bat darie. Oba argibide batzuk:

- *Mezatara izan zara, adiskide?*

Andoni etzan atzo batzarrera izan, Koldo bai.

Atzo ikastolara izan zintzaran, ume? — *Ez, ez nintzan izan, buruko mit az oian egon nintzan eta.*

ETXE BERATAN

Gero-aldian, alan be, ez da orrelango esakerarik entzuten. *Biar izango zara mezatara?* ez dau iñok esango, *Biar joango zara mezatara?* baiño.

ONEEK ALA ONEIK?

Izenorde erakuslea batena danean, ez daukagu alderik. *Au*, etorri da, *onek* egin dau, *ori* ondo dago, *orrek* ekarri dau, *a bere* etxean bizi da, *arek* jardun eta jardun diardu.

Baiña askorena danean edo bat baiño geiago adierazoten dauanean, ez bardintasuna daukagu bizkaiera-ko idazleent artean.

Batzuk —punterengo idazleak be bai— *oneik, orreik, areik, onein, orrein, arein, oneintzat, orreinizat, areintzat, oneitan, orreitan, areitan* idazten dabe. Beste batzuk, ostera, *oneek, orreek, areek* etab. Emen ez daukagu batasunik bizkaieraz.

Zein era artu bear ete genduke?

Leenik, zer au esan dagidan. Nik neuk ez dodala *oneik, orreik, areik* etab. errian entzun. Non edo non esatea badaiteke. Baiña bizkaiera egiten dan egalik geienetan (guztietan ez?) bestetara egiten dala esango neuke. «I» ori nondik atara etc dabe idazleak?

IDAZLE ZAARRAK ZER DAKARREN

Idazle zaarrak zein era darabilen ez dakit, irakurri be *cz* dodaz danak egin eta. Mogel'ek beñipein *oneek, oneek* eta abar darabiz bere «Peru Abarka» liburuan. Ikusi:

«Neke ta lor andi *oneek* igarota...»
 «*Oneek* lotu... *oneek* zabaldu...»
 «Ogi *oneek* egiteko zenbat for?»
 «Etxataz niri iñoiz burura etorri neke *orreek*.»
 «Berba-ioko *oneetan* esateko».

AZKUE'K ZER DIÑOSKUN

«El sufijo en... cuando es desinencia declinativa es tónica, por lo menos en singular. *Gizon onen burua* la cabeza de este hombre, *mutil den eskua* la mano de ese muchacho, *atzo aren barriketak* las charlas de aquella anciana. En plural, como cualquier desinencia pluralizadora, cae a la atonía: *gizon onen buruak* las cabezas de estos hombres: *mutil den eskuak* las manos de esos muchachos, *also aren betuleak* las pestailas de aquellas ancianas» (Morfología Vasca, 25 or.).

«En el B se usan los mismos (demostrativos) del sin bien con distinta entonación. Singulares: *onek* este (activo), *oni* (oneri) a este, *onentzat* para este, *onegana* (venir) a este...»

Plurales: *onek* estos, *onentzat* para estos, *onekana* a estos.

«Tratándose del demostrativo de segundo grado, en B la *r* vibrante se usa en ambos números, distinguiéndose unos casos de otros solo por la entonación:

Singulares: *ofek, den, orentzat, di, onegana*.

Plurales: *orek, ofen, orentzat, oferi, ofekana*» (442 or).

ITXAS-KUTSADURA

ARRORIO - ONTZIAK. — Arro gorantz doazi

Azkenengo amaika urte oneitan 250 ezbear or-nunbait izan ditue arrorio-ontziak.

Gogoratzen dogun lenena, 1967' go epaillaren 18'garrean jazo zan.

Orduan «Torrey Canyon» izeneko arrorio-ontzia ondatu zan, eta aurtengo epaillaren 18'an «Amo azkenenko ondamera agertu oi dausku.

Itxasoratu diran arrorio-upelkadak zorigaiztoko ondamerendi oneitan, zenbatu eziñak dira.

«Amoco-Cadiz»tik soil-soilik 200 milla tonelada gitxi gora-bera, jakintsuen eritxiz, itxasoratu, ta aibat kalte izugarri egiñik, alperrik galdu dira.

EDOZELANGO KALTEA K. — Arrorio au itxas-gaiñean kilometro askoko zabal-luzangan kokatu ta igerikaturik gelditzen danez, ez dautse itxas-urei artu bear eben oxigeno-arnasea artzen izten.

Orrez gain, arrorioak bere izate berezia galtzeko, au da, petroleo-izatea desegiteko be, oxigeno bearra berezkoa dau.

Olan, ingurumari bizi oi diran izaki bizidun guztiak arnas barik gelditu oi dira ta bereala

«Habitat» edo bizileku osoa atz-gabetasunez itoten dau.

Arrorio-azal ta estaldura lodi onek ez dau geienbaten eguzki-izpi bizigarriak itxasora sartzen izten eta emendik «fitoplancton» deituriko itxas-janarien erro ta sustraia ez da zabaldu ta gurentzen bear eban legez, bearrezkoa dauan «fotosintesis» edo argi-elkartzea kendu oi dautsalako.



KOPURU IZUGARRIA. — Urtero sei milloitik gora arrorio-tonelada jausi ei dira lurbira osoan itxasotara eta itxaso andietara.

Millakak dira itxaso andietan ildako abereak. Tamalgarri benetan !

Asieran gomutau dautzuedan «Torrey Canyon» arrorio-ontziaren aurretik, 1965 ' garrean, beste arrorio-ontzi batek, «Ger-Maersk» izeneko bera, itxaspetu zanean 8 milloa upelkada eroazan eta Elba ibaiaren ibai-muga edo itxas-adarrean 19 mueta ezbarðiñeko millo erdi egazti, kutsaduraz il ziran.

Itxas - gorabera baltz oneik, gazteleraz «Marea negra» diñotse-nak, eriotza nunai eurakaz daroa eta egaztiak ezezik maskordun, maskulu, arrain eta inguruetako itxas-bedar guztiak it oi dabez.

Bestalde, Itxas-landaredi desegite onek, erreka ta ibaietatik, eta itxas-ertzeko erri-urietatik itxaso diran urak dakarrezan zinkikeri, txotx-bacilo ta zorneak ugaritzeko esku emoten dabe.

LIEJA'KO IKASTETXE NAGU
Ikastetxe Nagusiak tresna-antolatzaileak «Ordenadores» erabili ditu, Daniel Dubois Itxas - bizitzaren berarizko eko danaren ardurapean.

Ordenadora oneitatik atara geinken ondorena da, ludi osoa arrisku itzalean murgilduta aurkitu oi dala, ludi-bizitza batik bat.

Eta galbide guzti onen zio garrantzitsuena ain zuzen, itxas-gorabera baltz au ei da.

Lerro baltz bat ludian zear doa, arrorio itxasoratuen ardatz lerroa, atan be.

Eta gure Bizkai'ko Kolkoa ta Kantauri itxasoa, lerro, ardatz ortan aurkitu oi dira.

ARRORIO GEIAGO. — Sortalde-tik sartaldera doazen arrorio-ontzien kopuru aundi bat, utsik edo petroleo бага dagozanean, itxas-barruan barne-garbiketak egiten dabez.

Garbiketa oneitan, eundik bat edo ortxe-ortxe arrorio, itxasora jaurtitzen dabez. Itxaso onek mi gora upelkada geiago iruntzi oi dauz.

Beste 250 milla arrorio-toneladak itxasoa kutsatzen dabe, kai barruan, ur-agorrean «dique seco» an arrorio-ontziak gertatzeko dagozanean.

Lantegiak be, ibaiak bitarteko, ikusi bestela gure Nerbion Ibaia, milloi bat inguru loikeriz gaiñezkako tonelada itxasoratzen dabez.

Itxaspeko arrorio-guneetatik berez edo ustekabean 600 milla tonelada; iraztegi «refineri»etatik 300 milla, ta azkenez, beste bultza beste ainbeste itxasbarruratu oi dira.

Gorago esan dodan legez, egitan tamalgarria !

Ez gara ekologistak, baiña eurai laguntza emon bearrean gagoz, beste baten esan neutzuen lez.

ARREGI'tar Josu'k

LAIÑO

ITXASO-EGUZKI.—Urre-aro zan, antxiña!


Eta gizakiak neba-arreba ebazan munduko abere guztiak. Berez etozan zuzatzak etxera. Eta ezti ta esnezko ibaiak ageri ziran landetan.

Iñungo aldatz bagako zelai ederra zan lurralde guztia. Eta berbadun ziran landara guztiak. Landara guztiak berbadun, baso baltzetako mukurretan emetzen dan goroldi, bedar kaxkar ori izan ezik.

ITSASO, jaun ederrez maiteminduta bizi zan EGUZKI andrea... Eta muxu ta muxu beti, itsas-kolkoko ur nasiak LAIÑO polit biurtu ebazan.

Eta or asi zan LAINO alderditsu ori, neskatil buru berokoa lez, batera ta bestera ibilli ta ibilli. Eta bere masailletako beroa galtzean bat, euri-tanta gozoak lurrera ixuri ta ixuri asi zan.

* * *



LOREN AGURRA.—Eta or doaz euri-tantok

jauzika ta kantaka, iturritik gora, mendi-egaletik bera. Eta kiri ta kiñu asi than, zelaietan eta mendietan, EGUZKI andreari; kiri ta kiñu, bai, andra EGUZKIARI, lora ta landara guztien buru gaiñetik.

Eta ala, zelaiz-zelai joian LAIÑO, andra EGUZKI ta jaun ITSAREN alaba polita, agurtzen eben lora guztiak euren burutuak makurturik.

* * *

GORRI.—Eta larrosak zirautson:

A gur, LAIÑO, nora oa polit ori, buruko adats ugari orregaz? Nai al don neure orritxu gorri onein soñekorik?

—Bai, enetxu, bai!, esan-eta larrosa gorriaz jantzi zan LAIÑO; goitik leraiño.

* * *

UBEL. Eta liii ubelak esan eutson, urren:

—A gur, LAIÑO! Nora oa, polita, larrosa gorritz jantzita? Nai al don neure kolkoko lurriñaz gozatu?

—Bai, enetxu, bai!-erantzun eutson LAINO'ke. Eta liii ubelen lurriñaz bete eban be te kolko zabala LAIÑO politak.

* * *

ZURI-GORRI.—Eta sagar-loreak eralsiki eutson, gerora:

—A gur, LAIÑO! Nora oa, polit ori, orren dotore jan.tzirik, eta lurrin gozo orregaz? Nai al don, pout orrek, neure loren zuri-gorria?

Bai, enetxu, bai-esan, eta sagarlore zuri-gorritz jantzi ebazan LAINO'ke bere matrail beteak.

* * *

GOROLDIA IXILIK.—Ibilliaren ibilliz azkenez nekatu, eta goroldi biguiñen gaiñean ezarri zan LAIÑO, atsedean ordez. Eta goroldi biguiña LAIÑO'ren azpian, zapal-zapal egin zan. Eta LAIÑO'k esan eutson:

—Goroldi, goroldi gaixo ori, zapaldu egin aut. Eta ik, gaixo orrek, tutik ere esan ez. Goroldi, goroldi gaixo ori, miñik artu al don?

Eta goroldiok tutik ere ez!

—A, gaixo ori!-LAIÑO'k, berriz ere. Ez donan iñork berbetan irakatsi? Nik erakutsiko diñat, ba. Ara, onelan esan bear daustan, ni ire aurretik igaro bakoitzean:

—A gur, LAIÑO. Nora oa, polit ori, larrosaz jantzizik, lurrin gozoaz, eta sagarlorezko musu eder orregaz? Nai al don neure oe biguin onen gaiñean, apatx, ezarri ta atsedean?

* * *

GOROLDIA BERBAZ. Eta goroldi ori, iñoiz ez eta, ara or nun asten dan berbetan:

—A gur LAINO, polit ori! Nora oa, larrosaz jantzirik, lurrin gozoaz, eta sagar-lorezko musu ederraz? Nai ete don neure oe biguin onen gaiñean, apatx, ezarri ta atsedean?

—Ola, ola-erantzun eutson LAIÑO'k ola esan bear don, ni ikusten non bakoitzean.

Eta aurrera joan zan LAIÑO, neskatil alderditsu ori, landa ta basoko sorkari guztiakaz itz eta Aitz.

JUANITO BEISTEG I'ERI

EUZKADI OSOTIK.—Milla lagun inguru, benetako Euzko Alderdi Jeltzalearen ezaugarri, izan giñan bagillaren 18'an Loiola'n alkartu giñanok.

Zer gauza egokiagorik olako giza-talde batenzat Juanito Beistegi'ri omenaldia egitea baiño?

Lau erkietako lagunak eta baita bere Iparraldetik maitekiro etorriak; Lete bere guda-lagunaren alarguna, Rezola aiztu-eziñaren (an egon giñanontzat beintzat) alarguna ta Solaun'dar senar-emazteak aitatu bear ditut.

AGURRA TA ALKARTASUNA.—Amaika ta erdietan batu giñan agur eta basarkada artean antxiñako gudari-lagunak eta burukideak alde batetik; arrezkeroko burruka-lagunak eta burukide gazteak bestetik, guztiok anaitasunik itxaropentsue-nean.

12'etan mezea, bere kapellau izandakoak emona, Seraffin Esnaola ta Aita Txanton karmeldarra Iatuntzaille ziralarik. Itzaldia dardargarria... txistu ta dantzariak urtekeran, txistu-soiñu gozoa entzuten zalarik, Juanito erdi-urtuta egoan.

* * *

GOMUTAKIAK ETA ITZALDIA.—Ikurrindantzaren ondoren, bertsolarien aurkezpena. Emazteari lora-txorta Lete'ren alargunak emonda. Jua bere irudidun lauko bat eta euskaldun makkilla, Eibar'ko lendakari gaztearen eskuetatik.

Gero nere itzaldi laburra: Juanito euskalduntasunaren eredutza goralduaz eta bearrezko dogun buruzagitzara deituaz.

* * *

LENDAKARIAREN ESKUTITZA.—Azkenez, Leizaola Lendakariaren eskutitz berezi bat irakurri zan, guztion txalo-ots artean.

Andik jatetxera, bosteunetik gora adiskidek egindako anai-arteko bazkarira.

A zan, irakurleok, euskal giroa, abertzaletasunaren sugarra, euzkotartasuna!

* * *

BAZKAL-OSTEAN.—Bazkal-ostean, Basarri bardinbakoak, Anton Ormaza Bizkai Buru Batzarreko lendakariak, aita Txanton'ek, Joseba Elosegik, Felipe Lizaso'k, Lourdes Munitxa'k, Laskibar Arana Buru Batzarreko Lendakariak eta ez dakit zenbatek itz egin eben Juanito bera noizik bein sartzen zalarik.



Beislegi ta basarri, adiskide bi.

Abesti ta gora-artean amaitu zan egun zoragarria, ainbat lagun eta alderdikiden eskutitzak irakurri ondoren.

* * *

LARRE-GORRI TALDEA.—Gauza asko ta izen asko itziko nebazan, arin-arin egindako lerro oneen artean, baiña ezin aitatu barik itzi antolatzaille izan ziran guda-lagun eta alderdikide taldea: Zuei zorionak!

Emen sortu da Larre-gorri taldea!

* * *

GEROKO BURUTAPENAK.—Etixeruntz nen zenbat burutapen gozo, samur eta garratz erdi-pilloturik!

Sagatzazu'tar Joseba'ren alarguna agurtzea nitzat zirkingarrietariko bat izan zan.

Ikasgaiak? Zenbat gura!

Bat? Oraindiño ba dagola Euzko Alderdi Jeltzalea ta Jeltzale ez dan benetako ALDERDIRIK ez dagola. Alperrik «loritoen» lana!

* * *

BURUZAGITZARA! — Amaitzeko neuk an esandako itz batzuk idaztea derrigorrezkoa dala deritxat... eta parkatu!

«Ez gara etorri historian sartu dan gizon bateri omenaldia egitera, ez; besoetatik oratuta burrukarako lenengo maillara, buruzagitzara, gizon bat ekartera etorri gara».

«Larre-gorri»ko gizona bear dabe bai Euzko Alderdi Jeltzaleak eta bai Larre-gorri taldean.

ARENAZA'tar Josu'k

BAKARTADEA

JAIOTZATIK.—Gizonaren bizitzan, bakartadea, noizean bein, bearrezkoa dala uste dogu naiz ta talde barruan bizitzea, bere jaiotzatik ekarri.

Itun zarrean, argi ikusi leiteke ori, Jaunak gizona sortu ondoren di^oanean. «Ez da ona gizonarentzat bakartadean egotea, eta emakume bat ezarriko dogu bere aldamenean».

ALDI LABURRAK?—Ez dakigu esaldi orreri jarraitzeagaitik dan, edo gure kolkoari ikustaldi bat egitea bildur garealako ba-da, dana dala, gaurko gizonak, bere eguneroko ekintzetan guztiz loturik egonik, bakartaderako astirik ez daukagula esan geinke.

Eta olan joaku gure gizarte gaixoa.

Baña Jaungoikoak asmakizun a izan ebanean eta itz areik esan, ez eban esan nai gizona alkarte barruan egon zanik, beti edo obeto esanda, gizarte aretan kide izanik, eta bere zeregifiak bete arlo atan, berentzat aldi labur batzuk artu bear ez ebazanik.

Geiago esango geunke.

* *

KANPOTIK BEGIRA.—Jaungoikoak, gizona sortu keran, aren barrenean ezarri eban, berangandik urtetako doai bat, kanpotik ikusi egian bere lana.

Eta ori eguneroko arremonetan ikusten dogu, sarritan zer egiten gagozan konturatu barik.



Adibide bezela. Iñoiz margolari edo pintore baten atzean egon ba-zarie ari adi, ikusiko zenduen zelan, txandaka, txandaka, bere mango edo pinturakaz ekiñalditxo bat egin ondoren, oinkada bat edo bi atzeratuten dan, urrintxoagotik ikuspegi baten begiratzeko egindako lana.

IKUSTALDI OSOA.—Zer adierazoten dausku onek?

Gizona bere lanean sartuta dagoanean, ez daukala naiko ikuspegiarik inguru osoa ikusteko eta zeregiña ondo betetzeko asmoa ba-dauka, aldika aldika, kanpora urtenik, ikustaldi oso bat egin bearko dautsola, ez eskuartean erabili dauan lanari bakarrik, a, ta aren inguru osoari baño.

Onelako zerbait be irakurri leitekean azken aldi onetan, eguneroko aldiskarietan.

* * *

BESTE MUNDUA.—Deia'n agertu zan oraintsu gizon gazte bateri jazotakoa, beste askori bezela.

Ez-bear bat izan eban, eta ildakotzat egoan; orain ain-beste erabilten dan «Klinikamente ilda» zorian.

Berak esandakotik, zelan ikuspegi baten lez, bere soin edo gorpua ikusi eban mai-ganean eta osagilleen su ta keta. barriro bizitzara ekarri naian.

Ez ekiala zelan, baño epe labur batean, soin aren bizitza osoa ikusten ebala, beste norbaitena izan ba-litz lez, aren uts eta bai ta be zuzen egiñak, pelikula baten lez.

* *

ASKATUAGO.—Poz pozik egoala bizitza barri aretan, soin aren barrura barriro sartzeko ezelako gurari barik.

Ez dakigu egia ala guzurra izango dan, baño gauza bat dago ziur.

Gizaseme guztiak urten bearko leukela noizean bein lotuta dagozan zeregiñetatik, euren bideak zelan doazen ikusteko.

Eta zer tarako emon etc dausku Jaunak doai ori?

Ez gareala ain garrantzizkoak, ain importanteak, jakitako, eta urko lagunari jaramon geiago egingo ba-geunskio, ;ure ingurua, gure Aberria, gizona azken baten, askatuagoa zango litzakela ikasteko.

* *

IZAKI-ARTEAN.—Baña zelan lortu ori? esan daike iorbaitek.

Ez da ain gatxa, Euzkadi'n batez be.

Nai ta Erri saratatsu onetan bizi, ba-dago oraindik naiko -nendi ta baso bake-bakean gizadiagaz egon daitekenik, :xorien txistu ta erreka soñuak bakarrik lagun izanik.

Eta norberak uste barik, etxetik atarako asmoa, au da,)sasunerako bear dogun ibillaldia egin beste barik, apurkapurka aldatzen joango da gizadiko edertasun apalak ikudrik, eta une baten aurkituko gara, gore eguneroko ekintza r.sterkatzen gagozala, eta baten baño sarriago, etxera biur-ukeran, gure gogo ta asmoak etxetik urten giñanean geuncazanandik urrin izango dira.

AZKUENAGA, ITXASGIZONA

EUSKAL ITSASGIZONAK.—Oso ezagunak ziran, Europa'ko bazter guztietan, Kantauri'ko gure itsasgizonak. Eta Prantziako Nantes, Hansa-Alkarte'ko Brujas, eta Ingalaterra'ko Londres'eko merkatariakaz eukezan euren artu-emon beiñenak.

Burdin-tresnak, ardu-upelak eta artulesakak eroan; eta garauak, oialak eta zidarreria ekarren gure itxasgizonok.

ONDARRABI'KO BATZARRA.—Ez ziran atzerritar eta gureen arteko artu-emonak beti xamurrak izan. Ingelesakaz izan ebezen euren gora-bera nastauenak.

Ori zala-ta, batzar bat egin eben Ondarrabi'ko urian eta 1344'garrenean, Ingalaterra ta Euskalerrri'ko itxas gizonak. Bermeo'ko seme zan, Azkuenaga'tar Martin Juan Bizkaitarren ordezkari.

Antxe ta orduan bakeak egin, eta ondo jarraitu eben, aldi baten. Gerora baiña, lengo naspillak barriztu, ta alkar burrukan asi ziran.

ASARREA.—Onelan idatzi eutsen Ingalaterra'ko errege Eduardo irugarrenak York eta Kanterbury'ko gongotzaiei, 1350'ko Dagonillaren 10'e an.

Euskaldun zital orreik, Jaunaren zigor bihurturik, gure bazter gustiak apurtzen diardue. Egin, bada, otoitz gure Jainkoari, zuen eliztar guztiekin bat, Jaunak zigor au gugandik alden du dagian.

Eta au idatzi ondoren, bere itxas-ontzi ta itsasgizonak burrukarako atonduten asi zan.

WILCHELSEA — Wilchelsea'ko itxas-kolkoan izan zan burruka. Eduardo erregea zan Ingelesen ontziburu, eta Bermeo'ko Azkuenaga, euskaldunen buruzagi.

Luze ta gogor joian eraso. Alde bateko ta besteko ontzi ta gizon asko yoiazan urpera. Ezin eroan ori ingelesak, eta areitako sei ontzik, sekulakoak egiten eragon, Azkuenaga'ren ontziari eraso, eta burruka latz baten ondoren, gillaz gora bota eben. Euskaldunak, orduan bira emanda, alde egin eben Ingalaterra'ko bazterretik.



ITUNA.—York eta Kanterbury'ko kanpaiak, dilin-dalan, ibilli ziran egunetan. Urrezko diru barriak egin ebazan erregeak Wilchelsea'ko burrukaren ezaugarriaz. Eta arrotza ebillen gizona, Euskaldunak betiko alden du ebezalakoan.

Lengotan baiña, jarraitu eben Euskaldunak, galduak galdu. Eta etsi eben, azkenik, Ingelesak, eta itun bat egin eben Euskaldunakaz, urrengo urtean, Londres'ko torre aipatuan. Eta erabagi oneik artu ebezen berton:

Bakotzak bakotxari, ordurarte alkarri egindako, okerrak zuzentzeko. Lurren bakotzeko itxas-gizonak euren ontziak nun-nai ibilli zaitezkezala. Eta Ingalaterra ta Gaztela'k iñoz alkar erasotzen ba eben ere, ez ebela euskaldunak iñongo okerrik izango.

Itza itz... urteetan *iraun* eban itun onek apurtu barik, lurren biren artean.

IDAZLEAK

U M E A K E T

UMEAK

Au naiz bestea esan, umeak beti dituzu ume: alai, eder, olgura-zale, tolesbako.

Iñok maliziz pozoitu ezik, egiti be bai.

Ni astero joan oi naz emen aurreko E. G. B. ikastetxera 12-13 urteko neska-mutikoai dotriña erakusten.

Zeintzuk etc dira okerragoak, oneik ala gure garaikoak? Nortzuk, bear bada, onagoak?

Itaun oni ez yako erre erantzuna emoten.

Guk geureak egin oi genduzan geure ume ta gartzaroan; oneik be bardintsu.

Ni neu onetan nago: gure umeak, ñok gaiztakeriz mal ezik, on-onak diralakoa nunbait.

Maltzurto ta gaiztotuteko, bai gure egunetan baiño tresna kaltekor geiago daukiez baztarretan; telebista, irrati, aldizkari, liburu, kale ta etxe, ba-dabe zoritxarrez nun gaiztotu berez errubage ta eder diran gizaki txikiok.

Gogora emen Kristok esana: «Txikitxo onetariko bati gaiztakeria irakatsi dagionak, obe dau orrelako orrek astoak darabilen orretariko errota-arri bat samatik lotuta itxas izatea. Munduaren zoritxarra gaizpideak dirala-ta!».

Eder da umea; eder yakuz beti ta nun-nai.

Eder da izadia, ta umeak be izadiaren zati besterik ez ditugu, gu guztiok lez.

Izadiak, alan be, ez dau errazoirik, gizasemeak dauan legez.

Eta errazoidun garealako, ta ortarako indartsu, izadiko gauzak-gauzakiak—eurekan dituen eder-onetik ikusi, begiratu ta aintzat artzen ikasi bear dogu.

Baita enparauai, umetxoai atan be, ortan alegindu daitezcan, bideak arduraz erakusten be.

Alde galanta dago —ez etc dakizu?— guk ezker-eskuma ditugun gauzak gaiñezka, jarioka, dauken edertasuna, ede zor yakonez, ikusi ta jasoten jakin ala jakin ez.

Eder ta alai ikusi bear dogu mundua, eta bizitzea.

Jainkoak ez gaitu nai beera begira, gora begira baiño.

* *

OLERKI-SARIKETA

Gauzak eder ikusi ta ederragotzen dakienak, olerkariak (poetak) dira batez be.

Ortik ba, umetxoai olerki ta poesi-bidea erakustea bai dala zeregin bikaiña!

Bizitzeak berariz, gizonak ezarrita, ez izan dudarik, dauan latz-ikara, garratasun ta aldatz-gora leundu ta samur-azten jokatu; orixe da gure egitekoa.

Eta, labur, orretan saiatu nai izan yaku azken urteotan Zornotza'ko «Kultur-Alkartea»; lau bat urteotan ortan diardu: beste kultura era askoren artean, umetxoak olerki nai ditu.

Olaxe igaz be, an Gabon aurretxoan, oitura egiñari berea emonez, 15 urtetik beerako neska-mutikoentzat, aurretik iragarrita egoanez, ospe aundi semarrez egin zan olerki sariketa bat.

65 olerki izan ziran batzaldirako bialdutakoak, Ondarru'tik, Zornotza'tik, Bilbao'tik, Gipuzkoa'tik...

Jasotako oneitatik amabi onenak aukeratu genduzan lenengo, sariketa egunean bertan amabiotatik iru oberenak aukeratzeko.

Lotazillaren 18'an izan zan sari emotea.

Amabi onenetatik, egille bakotzak irakurri bear izan eban berea.

Ariketa naiz jardun polita au.

Zelako jasa ta gatza erakutsi eben gure neskato-mutikoak euren olerki biziak esan eta abestuten!

Oba onako jardunaldi asko ba'genduz! Ekiñaren ekiñez ikasi oi da.

* *
M

OLERKI - KANTARIAK

Bustintza'tar Begoña, amabi urtekoak euskeraren edertasuna ebesten dau bost aapaldiko lantxoan.

Maite dau euskera, eta bera ikasi ta ikasi ari dalako, uste dau biztu dala len erdi-illik egoana; Euskaldun biotzetan bizi da, ta danak nai dabe euskeraz berba egin.

Ona azken aapaldi biak:

«Bedeinkatu zu zara
Jainkoak berak emana,
eta goratzen zaitugu
biotz-biotzez esana.

Gora Euzkadi gurea!
Gora euskera garbala!
Gora gure izkuntza zarra,
eta Gernika'ko Arbola!»

Karmele Errekatxo bilbotarrak, seigarren E. G. B.—an dabilenak idazkortz bat dauko here atz-artean, amak erosi dautsona.

Ikastolan dabil su ta ke ikasten eta idazten; azkenez idazkortza zaartu egin yako. Illeta antzera bertsuok bota dautsoz:

«Nine amak idazkortz bat
erosi dit niretzako.
Nik ikastolan
idatzi eta idatzi egiten dut.
Berakin nine lanak
egiten ditut.

Nire idazkortza
zaharra egin da,
eta ez du idazten:
it da;
Agur, idazkortz maitea!»

Andoni Bilbao. Bilbao'koa au be; ikasten dabilena.

Atsegin yakoz ipuiñak, eta berari be ipuiñak ontzea otu yaku; Esopo edo Pedro'ren antzera, edo-ta ain urrin jo barik, Bizenta Mogel edo Iturriaga'k egin obenez, aukera jator ariñean.

Goian, kaiola baten, txoria ikusi dau ipuiñariak. Txoriak here aldetik, azpian, txakurra ta katua ikusten dauz, burrukan jakaiña; baiña azkenez txakurra ta katua lagun egin dira. Txoria, ostera, barreka dakus ipuinlariak. Ona:

A O L E R K I A



«Azkenez or negua,
ez dozu lorarik;
otz, edurra or-emen,
ta txoriak ixillik.»

Ondarru'ko «Zubi Zahar» ikastolako **Josu Garalde** ta **Joseba Agirretxea'k** euren gora naiak abesten dauksuez dotore ta bizi. Garalde'k onan «Usoaren balada»-n:

«Uso maite, hegalari, / bidaiaria ortzian,
hire begiak bultzatu, / hor dago gure mundua;
eta ikusi noiz-behienka / gure bizitza (altsua:
ez duk ezer maitatzeko, / gizonaren aberrian.»

Aske izan nai dau olerkariak, uso egaz doanaren pareko.

Ez dau arek agintaririk, ez dau penarik, katea dau etena ta goi-zear dabil alaitasun betean.

Orrela gura leuke olerkariak be, ta ari eskintzen dautso bere kantu sutua.

Zornotza'ko ikastoletatik iru izan ziran aukeratuak: **Amagoia Itza'ren** «Arrantzalea», **Eduarne Amuritza'ren** «Baserritar bat» eta **Kepa Eguzkitza'ren** «Gure euskera».

Iru poematxo.

Euskera dogu geure izkuntza: gora dagigun! Baserriaz, poetak eta, asko idatzi dabe, baiña baserriko lanari begitu bage; urriñatik eta kantuz goratu, baiña bertan lan eginez, ez dira kontentu. Itxastarren egitea be ez da samurra; alan be or arrantzaleak.

Azkenik, **Arratzu'ko Lakarra'tar Ander** 13 urteko mutikoak, oso sentikor, gure lurraldearen edertasunak goratzen ditu.

Lau zatitan banandu dau bere 29 bertsoko lana.

Ezpanetan darabil here lurrairen izen eztea, belarrietan txori kantari, surretan usain gozatsua, eta begietan «Ama-Lur» maitearen argia.

Eder, oso eder ei yako euskal mendiak igotea, gure zugatz, ibai ta izadi zabalaren ederrez gozatzea; pozik besarkatzen dau emengo udabarria, beroz maitatu «zure udeak», euriaz busti «zure udagoienak», otzez kukutu «zure negua».

Iñoiz uste dau aberritik urrin doala, ta diñosku: «Bidez noa, atzerrituta, zu geiegi maitaturik; negarrez noa, zure orlegia geiago ezin ikusirik; etsita noa, zure oroipena buruan adoretzu». Eta amaituz, onela: «zuk gogoan eukiko nozu/, baiña onen penek/ni lurpera bialduko!»

Onakoxeak dira, naiz-ta txiki-ariñak, eder ta joriak Zornotza'ko «Kultur-Alkarteak» igaz neska-mutikoentzako eratu eban olerki-seriketarako etorri yakuzan lanak. Biotz on, gaztetxuok! Eta gertau lanak aurten Gabon-aurretxoan egingo dan sariketarako be.



izilli r

«Txori bat barrezka
asi da, txakurra
eta katua, eskua,
emoten ikusita.
Ja, ja, jai,
txoria.»

Garikoitz Albizu be bilbotarra. Ikasle zintzoa. Polito daki euskeraz. Euskal erria goretsi nai dau, eta goresten, bere olerkitxoan. Gure erri-gaiñ edatzen diran izarrak euskal neskatxen begiak iduritzen; gure mendi ta basoak, munduko ederrenak; gure izkuntza, larrosa zabal usaintsu. Bigarren bertsoak onela:

«Ain txukun ta eder
krabeliñ dirudi,
usain emoten dautso
bedar goxoari.»

Maria Gondra'k, urteko aroak damoskuz oso ederto. Eder da udabarria lora zuri-gorritz; udak bere uzta dakar, udazkenean batzen dana; orri oriak lurrera doaz, zugatzak jantzi bage itxirik.



Arraintzalien Arozoa Eta Arraintza

BOKART-BILLA. Iru illebeta t'erdi gitxi gora-bera egin ondoren itxas-ontzi andiak au cia, bokart-arrapatzaileen itxasontziak, Jorrailla'ren 10'etik aurrera asi dira itxasora urteten eta bereala bokart-arraina arrapatuten (jakiña) eta irabazten.

Sal-neurria lenengo egun bietan ez zan izan arraintzalitizat atsegiñezkoa igazko urtea gogoratuz.

Igaz, asieratik eta amaitu-sasoirate ados egon ziran bokart-arrapatzaileak, geienetan, 60 pezetatik gorako salneurriak izan dituez-ta.

Aurten ez dagoz ados («konforme») 60'tik berakoak daukiezelako.

Arrain-saltzaileak eta erosliak oneik biak claukez euren errozoiak. Lenengokoak, arraina arrapatuteko tresnak eta abar, igaz baiño garestiago daukiezelako eta bigarrenak, igazko bokartak erosle batzuk geldik eta aurtengoak danak erosle guztiak beingora-bera urten-bide barik, gelclik daukiezelako.

Salneurria makalagoa edo txikiagoa ikusiz, ez dira arazo-etan makalduten gure arraintzaleak.

Arrainak atara, eta segiduan doaz itxasora.

Onela dabilzt aspaldion zeñek geien arrapatu.

Arraintzale-trebeak bai dira.

Igaz, ogeitik, berrogei mille ogorlokorainoko irebaziak izan ditue gure arraintzale-trebeak.

Aurten iritxi edo elciuko dira igazko irabazietara?

Ezin ncike ziur esan, ez, baiña merkeago dituen ezkerro eta bokart arraintza-sasoia laburragoa daukien ezkerro, ez claukie biderik igazko irabazietara elduteko, bide-egokirik.

Poztuko nintzake bes-era gertatuko ba'litzake, au cia, igaz bairio pozago geratuko ba'litzakez arraintzake guzti-guztiak.

AZOKA-ALKARTEA. —Bokart-arraintza-sasoia laburragoa dauke aurten, «Komuneko Merkaderen» eragozpenak clirala-ta.

Ango eragozpen barik egon ba'ziran, aurten be goizago asiko ziran bokart-arraintzan, baiña ori dala bide, geldi egon dira itxasora urten barik Jorrailla'ren bigarren aste-arte.

Igaz Epailaren asieratik asi ziraden kaiatik urtenaz bokart-arraintzan.

«Komuneko Merkaclutarrak» «Baimen-Agiririk» emon ea deustielako itxasontzi guztiai arrainak leku guztietan arrapatu dagiezan, baiña arraintzalie be ez dira guztiz ezjakiñak, eta guztiz ez jakiriak ez diran ezkerro, bost itxasontziko taldeak eratu ditue. Komuneko Merkadu» Baimen-

Agiria, bostetatik bik bakarrik claukie eta bien indarrez, bostak jokatuten clabiltz orainartean arraintzan (78-4-4).

GAUR ZELAN.—Itxasontziak clagoz 24 eta 30.000 anciki (kilo) gau batetan arrapatu clituenak.

Baita aurkeztu da gure kaian, 24.000 anciki itxasontzira-uto ondoren, arrairien indarrez sarea apurutako itxasontzia be.

Egun onetan (70-4-4) bokarta aski sartu da gure lcaiaara.

Arrain andia, andia izanagaitik be naiko ekarri dabiellako edo, jatsi zen here salneurria (preziva) 26 pezetara -edo ancikia eta asko jatsia clala ikusirik, ez dabe urten gaur itxasora.

Ondo pentsatua nik uste, bizi-bide garestiari begiraturuz.

Datorren asteko astelenean urtengo clabc barriro bokart-arrapatzaileak itxasora.

Aste ona euki clagiela guzti-guztiak Jaungoikoaren naia be, orrelaxe izan dedilla.

Bizi-bidea garesti eta merke bokarta saltzea, ez datorkie arraintzalie jo ta ke ibilitea; konturaturik pentsa daikie etxean geratutea, bide onegaz ikus dagien salneurri jasokutzea.

Errozoia du arraintzaliak salneurri jatsi dalako, errozoia du erosleak be, saltze onik ez dulako; alderdi biak dute errozoia bata besten alderako, bien errua norktzuk daukien zentzuz jakin ein bearko.

AZPEITIA" TAR GOTZON'EK

Dagonillean ez da argitaratuko ZER. Oporrak artuko doguz. Isakurleak be izan beiez opor zoriontsuak.

IDAZKOLAKOAK

GAURKO TEOLOJIA

- *Eritxi zar batzuk*
- *Eritxi barri batzuk*
- *Nogaz gu?*
- *Idazteunaren elburua*
- *Poesiz eta irudiz*
- *Gaur ulertu ezin*

● BIBLIA ZEATZA

* * *

Ba dira oraindik kristau-talde katoliku-izena claroenak eta, Jaungoikoak zeru _lurrak ogetalau orcluclun sei egunean egin ebazala esaten dabenak.

Jau.ngoikoak lurreko lupetzetik egin ebala Adan, uriolea mundu guztikoa zala ta zortzi eta eurakaz abereak Noe'ren otzi-kutxan salbatu zirala uste dabe.

Fosil, arribiur eta atxak Adan'etik Uriolara aldikoak clirala eta ez billoiak urte dituenak, esaten dabe.

* * *

Baiña katolikuen ikastoletan mu.ndu.a lau billoi urtez gitxi gorabera zarra dala ,ta gizona billoi bat gitxienez lur gaiñean bizi dala, irakasten dabe.

Aitatu dogun Erromatar katoliku-taldea tinko clago ori teori edo ipotesi egi-antz bakoa dala esan eta esan.

* * *

Gu geu nogaz geratu? Nori emon errazoia?

Ezelan be ez erromatar katoliku-talde orreri.

Ezin geinke orretzaz euren eritxia onartu.

Idazteun, Biblia, Jainkoaren eta gizadiaren arteko alkar egiteen konclairea dala sinisten dogu.

Istori orretan ez dogu billatu. bear munduaren sorkez jakin.garri-lerrorik, gizadi ta izadi osoaren goi-age.rkundera (errebelaziñoa) baiño. Bibliaren egia, egite ta giza-zenbaketaren agu.tegia baiñoa askozaz geiago da.

* * *

Idazteun edo Bibliaren idazleak ba ekie n orrelango sakontasunaren goi-argiak, istori-biclez bakarrik mintzatu ta agertu leitekezela eta poesi-kondairak giza.-adimenari al clan bestean ulertuarazoteko dirala.

* * *

Poesi-egia kondairearen bestean cia baliodun, baiña ezbarclintza baten, goragoko maillan.

Jesus'ek, antza, ipuin edo parabolen bidez erriari irakatsi gurago eban, egite jantzi-bakoak bere mezua agertzeko, Barri Onaren misterioak azaltzeko bide ona ez ziralako. Tamalez neurketazko mundu onetan bizi garanak, poesi-egiarentzat gure oneritxi zati aun.di bat galdu dogu.

* * *

Gauzetan zeaztasuna billatu gura izaten dogu. Jainko-egiaren erreñuan orixe egin guraz gabiltz, naiz ta emen giza-mail neurriak esangu.rarik izan ez.

Genesis iclaztitik munduaren kronolojia jakiteko jardutea, galtze-bidea izango cla.

* * *

Asierako poesi-indarrak «zenbat egun» eta «zenbat abere» esaten dau.

Poesi-zentzuna ta trebetasuna sumatu ta oartzeko, egiaren zabalpen aundia ta sendoa dira.

Indar itzala clabe eurak, Biblia bere edertasunaren ta barri- Emotearen bidean zaintzeko.

* * *

Esan clogu.n guztiak esan gura clau Biblia ez dala zeatza?

Ziurrez, ez ori!

Bibliaren ogiak laburki batuta dagoz geuretzako eleizearen kredoan. Baiña Biblian jantzi apainagaz jantzita, kondaireagaz nastuta datoz.

OPORRAK ETA NOTAK

EGUN LARRIAK.—Lantxo au idaztean, umeak azkenengo azterketak egiten ari dira.

Egun larriak benetan, baiña ez umeentzat bakarrik. Lekasleak be era bardiñean aurkitzen gara.

Egun oneik ez ditugu umeen jakituria epaitzeko bakarrik: geure lana be cpaitu eta aztertu bearreko egunak ditugu.

Ze erreza dan notak ipintzea!

Baiña notak ez dira umeen erantzunen erakusgarri bakarrik.

Irekaskintzaren erakusgarri be izan litzakez, eta, beraz, geure buruari be onein antzerako itaun batzuk egin bearra dogu: Lortu ete ditugu, ba, uria asieran jarritako elburuak? Zelangoa izan da gure irakaskintza eta eziketa?, eta abar, eta abar.

Zuzenak izateko, oneik eta antzerako itaun batzuk egin-ostean, epaitu bear genduk^zez gure umeak.

GURASOAK.—Umeen antzera aurkitzen dira gurasoak be: urduri dagoz.

Egun oneitako euren ardura ia bakarra semeen notak dira.

Zelangoak ekarriko ete dabez? Onak Txarrak? Zelangoak?...

Urduritasun onetan sarritan uts bi izaten dira: notez bakarrik arduratzea eta norberakeri geiegiz jokatzeta.

Onela geienetan umearen ezkuntza aztertu barik geratzen da eta umeari emon bearreko laguntzak baiño norberaren oporrak garrantzi geiago izaten dabe.

Nota txarrak eskuratzean artzen diran erabagiak uts onein ondorio baiño ez dira izat^zen sarritan.

BILDURRA.—Umeak, egia esan, gurasoak ostean antuko dabezan erabagier jakitun izaten dira, eta, jakina, zigorraren bildurrez oraindik urduriago jartzen dira, eta azterketak txarrago egiteko arriskua izaten dabe.

Egoera orretan, urte-azkeneko nota txarren errudun ez dira umeak bakarrik.

Aurreko iru idazlanetan be arazo au aitatu gendun. Gaur arazo au oraindik larriagoa da.

Larritasun orren erakusgarri argi bat dogu: urte azkeneko gurasoekazko artuemonak.

Ia itaun bakarra dogu: zer egingo clau gure semeak? Aterako dauskuz danak? Atera ezik, zer egin bear geunke udan?

* *

BERANDU.—Egia esan, beranduko larriak ditugu.

Urte-azkenean jokutzen daan elan, asieratik izango balitz!

Baiña ez da orrela, eta, beraz, susterreko gatxa dogu («Dogu» esatean gurasoak eta irakasleak baifio ez ditut aitatzen).

Bestalde, gure elburua azterketak bakarrik dirala esan daiteke, eta au uts tamalgarria dogu.

Jokabide onetan gauzarik garrantzitsuena buruz ikastea dogu. Doai au dabeneztat ikasketak pozgarri dira, baifia ez dabeneztat etsipen utsa.

Ez ete dago azkenengo oneintzat eurak zoriontsu izan eta gizarte serbitzurako beste biderik?

Liburuak etc dira, ba, bizibide bakarra?

BURUZ?—Geienbaten pentsaera au teoriz oso ulerterreza dogu, baina egiteetan ez da beti orrela izaten.

Barren-barrenean umeen eziketak guraso danei ardura dautse, baiña sarritan barrenegian.

Gurasoekaz izaten diran artu-emonak geienetan notei buruzkoak izaten dira, eta au umen neurri bakar batez epaitzea da; au umea bizibide eta zorionbide bakan bate-tara beartzea da.

* *

AGIRAKA.—Era orretara jokutzen danean, umeen eziketeta neurri eta eredu notak bakarrik diranean, agiriko jokabide batzuk izaten dira.

Leenengo eta bein, agirika eta zigor batzuren ostean, bera baiño argiago diran ikaskideekaz dauazan aldeak autatzen jakoz umeari.

Eta egin be, zoritxarrez, auzokoen edo beste senidetar batzuren aurrean sarritan. Zer lortzeko? Ezer gitxi: lotsatu, bildurto, nagitu eta abar.

IKASTE BEREZIAK.—Bigarren jokabide bat uda oso-rako ikastetxe berezi batetara bialtzea izaten da.

Jakiña, «onenak» guztiak batzen dira bertan eta zigorez urtea ateratzen lortzen bada, asko izan.

Ikastetxeta bialtzean, zein etortzean itz bardiñak entzuten ditu: «Zuk ez dauskuzu uda galarazten, ez aurten ez datorrenean».

Errez ulertu dagikegu umeak udan izango dauan ikasteteko gogoia.

GURE NAGIKERIA!—Antzerako beste zigor batzuk be ba dira.

Baiña ez goaz geiago aitatzen. Pentsatu dagigun beste au: Urte barruko umeagazko gure nagikeria ez etc dogu sarritan rdarkerrz estaldu nai izaten?

LEGARRETA'TAR JOSU'K



BEGOÑA'KO AMA GUJERAT'EN



Aida baten pizti bildurgarriak atzea emon, eta uste baiño len, etorri zan lekutik anka egin eban.

Gure Mixiolaria egindako eskeintza bete bearrean eurkitzen zan, eta betiko kontua dan lez, orretarako txindi ugaritsuak bear.

Asi zan diru billa, eta alako baten Aita ScheiHer'engana be zuzendu dan.

Onek al eban neurrian lagundu eutsan.

Urteak aurrera joiazan eta eleizea jaso gabe.

* *

ERAGOZPENAK

Mixiolariaren asmo berezia bai zan Eleizeagaz batera Gujerat lurraldeko kristau txiroentzat be etxetxu batzuk egitea; eta kristau oneik gizarte beko maillako «parias» deiturikoak ziranez, agintarien baiinenik ez eban lortzen.

Egungo egunean baimenak, diruak eta etxetxuak bide onetik doaz.

Ori ta be, etxe geiago bear eta zer onek ukar, limosna ugariagoak emotera beartzen gaitu, egitan.

Begoña'ko «cabildo» edo apaiz-batzarrak Ama Bijiñaren irudi eder bat bialdu dautse.

Eta orain dator arrigarriena.

* x *

ITSUAREN DOAIA

Limosnak batzen daragoic.

Euren artean itu batek 20.000 laurleko mixio onetarako batu eta bialdu ditu.

Eta zio au clakar: «Itsua izan ez banintz diru guzti oneik eralgita eukiko nebazan zinc ta ostikopelotako txapelketak ikusten. Orain gura dotena arimako ituak idoro oi diran mixio-lur orretan, itu orreik Barri Onaren, Ebanjelioaren argia ikusi dagiela».

Billatu geinke gauza arrigarriagorik?

Eredugarria benetan itu onek egindakoa. Eta guk ikusten dogunok zer dagigu?

Begoñako Ama Bijiñak argitu gaizala beti, eta aurtengo 75'garren urtebetetzean Beragaitik eta mixioen alde guk be gogor ta neketsuak jakuzan zer batzuk egin dagiguzala, eta adoretzu egin be.

ARREGI'tar Josu'k

BEGOÑA'KO JAIA

Aurten 75'garren urteburua bete oi cla gure Begoña'ko Ama Birjiña Bizkai'ko Jaurerriaren Zaindari izendatu zanetik.

Ama Birjiña'ren ikatz-arrizko eztei oneik alik ondoen betetzeko bizkaitar guztiok batez be, gerturik izan bearra dogu.

Onetzaz DEIA egunerakoan oso polito idatzi eban lengo baten Mañarikua'tar Ander konclairalariak.

ESKARIA

Nik be neure aletxua ipintea gura neuke, idaz-lantxo au gure Begoña'ko Amaren aldczko omenaldia Bizkaia osoan zabaltzeko izan daiten.

Ortarako nire adizkide zintzoa dodan Aita Gustavo Scheifler josulagunaren eskabideari jaramon egitera noa.

MISIO-LAGUNTZAILLE dan orritxo bat gazteleratik cuskeratzeko eskatzen dausta berak.

Gauza erreza beraz.

Gujerat izentaturiko mixio-lurra India laterrian aurkitu oi da. Errialde lander, txiroa benetan.

Goazen bereala ba arira.

KATAMOTZA

Urte batzuk dirala Gujerat mixio-lurraldeko mixiolari batek baso-oian trinko baten izugarrizko katamotz (tigre) bategaz aurrez-aurre topo egin eban.

Ez eban inolako urtenbiderik.

Orduan mixiolari ausarta Begoña'ko Ama Bijiñaz gogoraturik, Berari eskintzea otu jakon arrisku aretatik gaizkatzen ba eban, an bertan Begoña'ko Andra Maria'ri eregiko eutsala eleiz bat oroigarri lez.

EUSKAREA INASTENO, EIIT11111 ETA ULERTU

**XABIER PEÑA'REN IRAKASPENAI
JARRAITUZ.**

KASETAK DAUKAGUZ SALGAI.

ESKATU

EUSKERAZALEAK ALKARTEARI

(Colon de Larreategui, 14-2.º)

GAZTETU

ERDI-ERRIA.—Nor ta zertarako gaztetu?

Gaztetu bear diranak gizon eta andra urtetsuak dira.

Gizadia gazteak eta urtetsuak osotuten dabe bakotxak bere unurak gizacliari emonagaz.

Gazteak bakarrik bizi divan erria ez da erri osoa, erdi erria baño eta bardin urtetsuak bakarrik dituan erria erdi erria baño ez cia.

*

ETEN BARIK.—Gizon bakotxak bere ondasun ta aberastasunak ditu.

Urtetsuak be euren sen berezia daukee erri arloan euskal arloan etabar.

Urtetsuak mendeetako sena ta jakintza-kultura ugaria dabe, gazteak baño aberatsagoa, ta jakintza ori, izate ori, gazteai emon bear dautse edestiak eten ez dagin, edestia eten eskero erri ez bardin batek urtengo leuke, euskalduna ez dan beste erri batek.

Ori galtze aundia benetan.

Euskal erriak, sustraidun erria izatekotan, an-txiñakoen bizian oñarritua izan bear dau.

LENGOA OBETU.—Orregaitik ha urtetsuak zer egin aundia dabe lurrean.


Egia da erriak beti aurrera egin bear dauala, baña etenik baga, beti euskal erri izan daiten.

Erria gaurkotu bearrean dago baña ez gaurkotu bere izate bereziari utikan eginda, lengoa oberatuta baño.

Gauzak bide zuzenetik ibili daitezcan urtetsuak bear doguz.

ZARRAK BEAR.—Zarrak bastertu bear dirala entzuten da or emen, baita eutanasiagaz edo beste era batera urtetsuak desegin bear dirala esaten eta idazten be, asi dira batzuk.

Bai astakeri ikaragarria orixe.



Bear ditugu urtesuak ezertarako balio dabe ta.

Egunotan euskal izlari jakitun batek esana da: Ez gara alegindu bear urteai urteak geituten, urteak bizituten edo urteai bizitasuna emoten baño.

ONARTU.—Zar bizi biziak gauza aundiak egiñak dira.

Or esatebaterako, Adenauer, Jon ogetairugarrena etabar... Gizonaren gogo ta biotza itxaropenez ta baikortasunez beteten badoguz geure maitasun ta laguntasunagaz, gazte biurtuten da.

Gauza miragarriak egin ta altasunez beteten da izkuntza, oitura Jainko zaletza ta beste arlo askotan gazteak eurak baño zakonago diralarik.

Ez bastertu urtesuak eta bai aintzakotzat artu pozik urte luze-luzeetan erriaren onerako bizi daitezcan.

*Cure guraso urtesun onak
zuei oorea beti
zuek baga guk ez bizitzarik
izaterik be ez iñoiz
zueiri ezker Gure Jaunagaz
sortuak gara Euzkadin
zuek iltean kendu ten iaku
atal eder biotzetik
mendi aldapa zuentzat da
ez arinka ibilterik
azurrak gogor zugatz legorra
soiña dago tximurturik
baña biotza gordin osoa
grña txarrak aldendurik
badau maitasun bero zintzoa
baita gogo indartsurik
sutondotxoan gentza aundian
alai ta bakez jarririk
autu ta ipuiñak esan umeai
gazteai be bai bardiñik.*

ITXASTAR BABES BAKOAK

ITXAS-GIZON GAITZETSIAK.-13a doguz itxas-barna itxasontzi ezezagunak ugari. Ez cia gaitxa olakoak noizean bein aurkitzea.

Ez darabille ikurrin ezagunik edo aspalditik eta gizaldiz gizaldi laterri geienak darabilen lakorik.

Ez dogu esango itxas-ontzi lapurrak edo piratak diranik, baiña ez dagoz legepean.

Lencngo ondorena, euren menpeko itxas-gizonai ez dautsee ezelako gizarte babesik emoten. Eta olan 15.000 bizkaitar aurkitu dira eta España laterri osoan 50.000 or nunbait.

JABE BIOTZ-GOGORRAK.—Itxasontzi onein jabeak, zein txipriotar, zein libeiiar, zein panamatar, Bermudas eta abar'eko ikurrin guzurtiak agirian ipiñi oi dabez eta gure aña dirugaz euren sakelak betetu.

Ez dabez, esate baterako, zergak ordaintzen euren jatorrizko laterrietan, cz eta benetako lanbidezko legerik onartu ere.

Azkenik, eta onetzaz batez be daragoiogu, idoro oi dabezan mariñelak, billatu leikeezan merkeenak ezeze, lanik ezaz murriztuta edo aspertuta dagozenetakoak izaten dira.

KOPURUAK.—Itxastar oneitatik % 84 ezelango gizarte babesik ez dabela uste da. Beste % 16'ak itunben merke berezi bategaz aldezturik dagoz. Ez ei da olan be itunben au euren bearizen guztiak betetzako lain.

«Instituto Social de la Marina» edo Itxastar-Gizarte Elkargoak osotu oi ditu alan-olan betegarri oneik.

Mariñel-billatze au batik bat Bilbo'n gertatzen da eta orretan amarren bat itxas eta lur elkargok diardue.

Arrotz itxas-ontzien artean banatzen dira baturiko itxas-gizonik geienak, lautik iru (3/4) gutxi gorabera.

Emen, benetan, zati garrantzitsuena ikuirin guzurtiko itxas-ontziak daroa.

*

IRABAZI JORITSUAK.—Urontzi ezezagunak dakarran neuriibako aunditzeak argi ta garbi erakusten dausku ze-nolako irabazi ugaritsuak lortu oi dabezan euren jabeak.

Izugarrizko aunditza au Prantzi-aldean geien baten narbitu oi da.

Arazo orregaitik Prantziko legepean dagozen itxasontziak guztiz arduratuta ei dagoz agian.

1977'garren urtean ludiko itxaso ta itzasandi guztitik zear itxasontzi dan-danok eroaniko eros-gailluak kontuan arturik, esan dagikeguna da % 30 erosgai, ikurrin guzurtikoak ebiltzanak eroan zituela ain zuzen.

Ez da txantxetako zera!

Ikusi dagigun azi-orrazi au beste ikuspegi batetik.

1964'garren urtean itxasontzi ezezagun oneik 1.088 ei ziran, eta eurak eroaniko upelkadak, toneladak, 19 milloi.

Joan dan urtean, 1977'garrenean, 10.116 urontzi zenbatu zeitekezan eta saleroskiak guztiz 134 milloi tonelada.

Olan dakusgu itxasontzien aunditza % 60 izan dala, eta salgailluak 7 bider geiago igon dabezela 13 urte oneitan.

MARIÑEL GAITZETSIEN GEROA.—Marinel oneikaz barriro daraiogula, esan bearra dogu, urriñeko lurraldeetan eta iñongo laguntasun barik bein eta geiagotan euren itxasontziko ontzi-buuak izten dituela.

Zori errukarria eurak jasanikoa!


Ez dabenez iñongo lege-babesik, cz daikeez euren eskubide preminazkoak iñon azaldu, eta azaldu arren ez dautsoe jaramonik egiten, ba geienbaten jabeen jolcabideak ontzi-buruen eritxiakaz bat datozela, beti itxas-gizon gaixoak makillatuak gelditu oi dira tamalez.

Egungo egunean, aburubide edo teoriar beintzat, gauzak zelanbaiten zuzenduko dira.

España'ko gobernu ta agintariak oingoz «Erri-arteko Lanaren Erakundean» sartuta dagoz. Olan agintariak mariñalen salketak onartuz, euren zeregiña salaketa oneik aztertzea ta aldezea izango litzake.

Orrela jazoko dala deritxogu.

ARREGITAR JOSU'K



ITXASTAR BABES BAKOAK

ITXAS-GIZON GAITZETSIK.—Ba doguz itxas-barna itxasontzi ezezagunak ugari. Ez cla galtxa olakoak noizean bein aurkitzca.

Ez darabille ikurrin ezagunik edo aspalditik eta gizaldiz gizaldi laterri gaicnak darabilen lakorik.

Ez dogu esango itxas-ontzi lapurrak edo piratak diranik, baiña ez dagoz legepean.

Lenengo ondorena, euren menpeko itxas-gizonai ez dautsee ezelako gizarte babesik emoten. Eta olan 15.000 bizkaitar aurkitu dira eta Espana laterri osoan 50.000 or nunbait.

JABE BIOTZ-GOGORRAK.—Itxasontzi onein jabeak, zein txipriotar, zein libeiiar, zein panamatar, Bermudas eta abar'eko ikurrin guzurtiak agirian ipiñi oi dabez eta gure aña dirugaz euren sakelak betetu.

Ez dabez, esate baterako, zergak ordaintzen euren jatorrizko laterrietan, ez eta benetako lanbidezko legerik onartu ere.

Azkenik, eta onetzaz batez be daragoiogu, idoro oi clabezan mariñelak, billatu lcikeezan merkeenak ezeze, lanik ezaz murriztuta edo aspertuta dagozenetakoak izaten dira.

*

KOPURUAK.—Itxastar oneitatik % 84 ezelango gizarte babesik ez dabela uste cia. Beste % 16'ak itunben merke berezi batagaz aldezturik dagoz. Ez ei da olan be itunben au euren bearizen guztiak betetzako lain.

«Instituto Social de la Marina» edo Itxastar-Gizarte Elkargoak osotu oi ditu alan-olan betegarri oneik.

Mariñel-billatze au batik bat Bilbo'n gertatzen da eta orretan amarren bat itxas eta lur elkargok diardue.

Arrotz itxas-ontzien artean banatzen dira baturiko itxas-gizonik geienak, lautik iru (3/4) gutxi gorabera.

Emen, benetan, zati garrantzitsuena ikurrin guzurtiko itxas-ontziak daroa.

IRABAZI JORITSUAK.—Urontzi ezezagunak dakarran neurribako aunditzeak argi ta garbi erakusten dauku ze-nolako irabazi ugaritsuak lortu oi dabezan euren jabeak.

Izugarrizko aunditza au Prantzi-aldean geien baten narbitu oi da.

Arazo orregaitik Prantziko legepean dagozen itxasonziak guztiz arduratuta ei dagoz agian.

1977'garren urtean ludiko itxaso ta itzasandi guztitik zear itxasontzi dan-danok croaniko eros-gailluak kontuan arturik, esan dagikeguna da % 30 erosgai, ikurrin guzurtikoak ebiltzanak eroan zituela ain zuzen.

Ez cla txantxetako zera!

Ikusi dagigun azi-orrazi au beste ikuspegi batetik.

1964'garren urtean itxasontzi ezezagun oneik 1.088 ei ziran, eta eurak eroaniko upelkadak, toneladak, 19 milloi.

Joan clan urtean, 1977'garrenean, 10.116 urontzi zenbatu zeitekezan eta saleroskiak guztiz 134 milloi tonelada.

Olan dakusgu itxasontzien aunditza % 60 izan dala, eta salgailluak 7 bider geiagio igon dabezela 13 urte oneitan.

MARIÑEL GAITZETSIEN GEROA.—Mariñel oneikaz barriro daraiogula, esan bearra dogu, urriñeko lurraldeetan eta iñongo laguntasun barik bein eta geiagotan euren itxasontziko ontzi-buruak izten dituela.

Zori errukarria eurak jasanikoa!


Ez dabenez iñongo lege-babesik, ez daikcez euren eskubide preminazkoak iñon azaldu, eta azaldu arren ez dautsee jaramonik egiten, ba geienbaten jabeen jokabideak ontzi-buruak eritxiakaz bat datozela, beti itxas-gizon gaixoak makillatuak gelditu oi dira tamalez.

Egungo egunean, aburubide edo teoriar beintzat, gauzak zelanbaiten zuzenduko dira.

Espana'ko gobernu ta agintariak oingoz «Erri-arteko Lanaren Erakundean» sartuta dagoz. Olan agintariak mariñalen salketak onartuz, euren zeregiña salaketa oneik aztertzea ta aldezea izango litzake.

Orrela jazoko dala deritxogu.

ARREGI'TAR JOSU'K



ARRANTZALEAK

ITXAS LAIÑOAK

BURUKOMIÑAK

Gaurko burukomiñen artean arrantzaliena ez da txikia. Millak, tokiak, neurriak, arrantza-kopuruak...

Denporekin Pasai eta Ondarroa izango ci dira oraingo europar ondorenak mingarricn igarriko dituenak.

Bear ba da eurak izan dira itxasoari begira geien anditu eta geitu diranak be.

Nora joan bearko ete dira arrantzalien seme asko?

Bizi-bideak ekarri lei orreri erantzun emon bearra.

* *

LEKEITIARRAK VENEZUELA'RA

Aurten, beintzat, Lekeitio'tik Venezuela'ra joan dira ango txalopa batzuk. Bizi ziurrago baten billa. Arrantza geiago ta ondoren obeagoen ametsz.

Ara joan diranak leike geiago irabaztea. Jo ziurtzat. Eta emengo katea? Arrantzak emen dakarren katea, ondorena, lantegi, erabilketa, eguneroko gastu, gizarteko premiña eta ibarretakoa?

Laga daiguzan alboan, oraingoz, gure itxasontziak erbestera joan eta erri bizitzarako ekarri leikezan onura edo kalteak, mesede edo atzerapenak.

* * *

DENPORA ZARREI BEGIRA

Ez da lenena, gure kondairan, orrelako gora-berak ezagutu dirala.

XVI-XVII garren gizaldie tan gure kaiak eta gure erriak gizon premiñan ikusten doguz. Txalopak egiten eta erabilteko gizonik ez.

Emengo gizonak, batzutan, laburtarren ontzietan, bestetan olandarrene-tan.

Eta ori, bitartean lege gogorrek egozala erbestetar ontzietara joaten ziranen aurka.

Diruzko zigorrak eta gotputzarekiko zigorrak. Ala eriotza banaketako ba zan be, iñoiz zazpi edo amar urtetarako erramulari ibiltera beartuten zituen, jan truke, ezelako atsedeen barik.

Gizonak etenda lagateko zigorra zan ori.

Ez bakarrik goiko ordenaz.

Erriak be orrelako erabagiak artzera beartuten ziran, eurotan iñor gelditzen ez zalako bertakocan lan egiteko. Motriku, Ondarroa, Bermeo... sarri ebiltzan orretan keixu.

t

BASERRITARRAK ITXAS-ERTZAK BETETEN

Emendik etorri zan, barruko errietatik itxas errietara abizen barriak agertzea.

Zelan etorri edo joango ziran, esate baterako, Lekeitio, Bermeo, Motriku nai Getaritik arrantzale barriak Ondarroa'ra, euretatik igeska ba ebiltzan?

Orrela, itxas-errietan egiten zan utsunea beteten, Elgoibar eta Azkoiti ezagutzen doguz, Ondarroa'n beintzat.

Gaur arrantzale jator eta ugari, Aranbarri, Arrizabalaga, Badiola, Larranaga eta abar, Azkoiti aldeko basoetako lur zokilletan kozkonduetako erne miñak dira.

GAURKO EGOERA

Ez da bardiña gaurko egoera.

Lengo gizaldietan txalupak egiten iñarduen erriak. Oraintsu be bai, gure artean. Eta azkoitiarren orde, beste aldetatik etorri be bai lagun barriak. Lengo abizenak ba doaz, arrain andiak jez, ondora.

1968-1977 bitartean, Ondarroa'n, jaiotzetan, Badiolatarrak odol beroz igarten ba dira be, ba daukez arrapatu nairik Martin, Rodriguez eta abar.

Urte orreitan, frutu barrietan, 73 Badiola, 50 Martin, 46 Rodriguez, 39 Aranbarri eta 38 Arrizabalaga dira lenenak.

Eta eriotzetan... 36 Badiola, 20 Urresti, 17 Etxaburu, 17 Arrizabalaga eta 11 Arantzamendi.

Ikusten da nortzuk doazan eta zeintzuk datozen.

* * *

BESTE JOKOA

Baina ori lagata, irabazien jokoa ebillan len aidean. Eta askotan, senide izan da be, alderdi bateko ta besteko crregien ikusi eziñen ondorena zan portu batzuk aberats eta basteak itxas lapurreten kezkaz ia ilteko zorian ikustea.

Gaur... Emengo ontziak geiegi dira ta toki barriak billatu bear. Gaur be erri arteko politikak ba dauka bete orapilloa, baiña, batera nai bestera, gure erriak jasan bearko dabe sasoi eta zentzuz egin ez zan jokabide baten erakuntzaren lorra.

«KEIXETA»RI GERTATUA

«Keixeta» aizkolaria datorkit gogora.

Jokorako gertu ten zanean, bere lagunentzuz, sopa, ollerdi, kilo erdiko txuleta, lau arrautza eta fruta jaten asi zan.

Iru janaldi bardin egunean.

Baiña «Keixeta» konturatu zan bere jateko obeakin marka obeagoak egiten zitula ta indar zoro ori kaltegarri zala, ta... lengora jo.

Ba dirudi itxasoetan orrelako indar zoroen bat artu dogula ta orain bizi premiñak indarrak obeto ezagutu eta banatzera eroan bear gaituela.

Onetan dabil jakoa.

A. ZUBIKARAI

EUSKERAZALEAK

IRAKURLEAI OARRA

Euskaldunik geienok berezkoa dogu euskaldun izatea.

Aita-amen ondoan, etxeko beroan, auzokide ta lagunartean... buruauste aundi barik, etxe-inguruan ikasia dogu euskerea, dakigun gitxi ta urria.

Ez gara, ba, alegindu, barrurago jo eta ez dakiguna ikasten, dakiguna lantzen edo landuten. Dakigunaren jabe neke aundi barik egin gara.

Guk, umetarik euskaldunok, alpertzarrak izan garala autortu bear; eta betidanik erdel-iturrietako ura besterik ez dauala edan eta, euskerea ikastea gatxa dala, sailla dala, eta olakoak esanik burua egapera sartzea zera cia: oillokeria, biotzondoan indar bultzagillarik eza.

Gure izkuntzea orren gogorra eta neketsua eta da ba?

Gurea, txiñoena, errusiarrena zein japoieraz ikasteko; arda eta pipeari uko egiteko eta norberaren gurariz barau-aldi aundiak egiteko, indarra bear cia, indar berezia.

Euskerea ikastea lan gogorregia dala, neketsua ta astuna dala?

Ez uste orren gogorra eta latza danik, eta egiztatzeko, irakur begizue adiskide barri ez ezagun batek Wim Jansen'ek, Holandar euskaldunak Holancia'tik igorri daustan eskutitz ezitia. Ezertxu be aldatu barik bir-idazten dogu.

LANDAJUELA'tar A.k

ESKUTITZA

10- 5- 1978

KAIXO ANDONI:

Biotzetiko eskerrak ematen dizkizut zure eskutitzagaitik. Atzo artu det eta bereala erantzun nai dizut.

Lenengo, ez gaituzula ezagutzen, aukeztu nai dizut.

Ni ogei ta amar urte ditut eta ezkondua naiz.

Nere emaztearekin Lisse'n bizi naiz eta guk amaika illebeteko semetxoia degu. Nere emaztea Italiakoa da ta arrek «Marisa» izena du. Semetxoak «Remo» izena du.

Bi urte joan da egon gerala Euskalerrian. Donostia'ra ta Deba'ra joan giñan ta txango asko egin genituen Gipuzkoan eta Bizkaian ere. Egun bat Bilbo'n egon giñan; beste egun batean Santimamiñeko kobak ikusi genituen. Donostian euskal gramatika ta iztegi batzuek erosi nituen eta gero ikasten asi nintzan zure izkuntza polita. Orain arte liburu utsez ika-sirik, ez det ondo idazten euskeraz, euskal joskera oso zailla da-ta. Baiña, irakurtzean asko ulertzen det eta zure eskutitza dana ulertu det.

Holanda'n ondo bizi gera, askatasuna degu ta gure izkuntza itz egiten degu beti. Egiaz ez dakit nola bizi zeraten Euskalerrian, or ez naizelako iñoiz bizi izan. Nik uste det lotsagarria den ez erabiltze euskal-izkuntza eguneroko bearrentzat! Itxaropenean gelditzen naiz gaurko gobernua Madrid'en biurtuko dizkizuen antxiñako askatasuna ta eskubide guztiak.

Barkatu egin bear ko didazu oker asko egiten ba-ditut nere lenengo idazkietan euskeraz, baiña erakusten jarraitu ba-didazu oker guztiak, euskera laisterrago ikasiko det.

Barri ta albista guztiak Euzkadi'tik oargarriak zaizkit.


Zure erantzunaren gelditzen naiz ta zuri ta zure etxe koai nere agur beroena bidaltzen dizuet.

AGUR!

WIM JANSEN

ZAR

Colón de Larretégui, 14 - 2.º dcha. BILBAO-1



70 urte Bizkaiari laguntzen



CAJA DE AHORROS 
MUNICIPAL DE BILBAO
ONDO ERANTZUTEN DAU